



Aritz LOIOLA | FOKU



IKUSMIRA

ZEGOEN BEZALA, EDO BESTELA HOBETO

Hondartzek besoak zabaldu dituzte, udako hondar epela maite duten gorputzak hartzeko. Badira hondartza urte osoan igurztzen dutenak, egunik hotzenetan ere jelatutako hondarretan beren oin-en arrastoa uzten dutenak. Baina jendea saldoan eguzkiak berotzen duenean joaten da hondartza-ra.

Hondarra behatzetan, crema usaina, kresala ile-an, melokotoiaren salda hatzetan, kafea izotzare-kin, itsasoan etzanda ikusten den zerua, limoizko

izozkia, gorputzak sueto, gorritutako azalak, oinak pozik txankletetan. Zoragarria da hondartza, sendagarria eta gozagarria. Baditu, hala ere, momentu aldrebesagoak, erromantizismo gutxiko-ak. Auto ilarak, aparkatzeko agonia, gainezka dauden zaborrontziak, trasteak jasotzeko unea... Ir-teeran, atzera begiratu eta gure amonarekin gogoratzen naiz beti: «Inora joaten zarenean, etxe-ra bueltan dena zegoen bezala utzi, edo bestela hobeto».

Amagoia Mujika Telleria